

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2011ko abenduaren 6a. VIII. urtea. 2.319. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Gazteek eskolan eta etxean euskaraz egiten dute, baina ez hainbeste kalean

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, 36 lagunek parte hartu zuten Fronton kafetegiko Mintzodromoan; gazteen iritzia kontuan hartuz mahaia ingurua egin zuten

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu dute eskualdeko herri gehienek asteburuan; udalek zein eskolek antolatutako ekitaldi ugari izan dira **2-3**



I. GARCIA

→ Txekorra burruntzian, egunguztiko lanaren emaitza.

Txuleta Festari hasiera emateko zerbait berezia antolatu nahi zuten aurtengoan, eta hori lehen eguneko afarian kokatu zuten: burruntzian erretako txekorra. Erretegiko menuarekin gaur hasiko dira, 200 lagunentzat Zerkausion jarri duten jatetxean. **6**

'Adios, Bienvenida' lanaren estreinaldia gaur, Topic zentroan

Bartzelonako Mimaia taldeak Tolosako egonaldia baliatu du lan berria sortzeko **5**



Dantzari txikiek Alegian egindako saioetako bat. HITZA

250 dantzari txiki elkartu dira Alegiako kaleetan

Bederatzi herritako dantzariak izan ziren Sutarri taldeak antolatutako ekitaldian **4**

Asteasuko ziklo kros probak nazioarteko maila mantentzen du

Aitzondo Txirrindulari Elkartek, lasterketaren etorkizuna bermatzeko, aurrekontua jaitsi behar izan du, eta proba nagusian ez dira beste urteetako izarrak izango; gaur dira lau probak, Eizmendi auzoan **7**



Ostiralean, Galtzaundik antolatuta, besteak beste, Mintzodromoa eta mahai ingurua izan ziren. Gazteek, euskararen inguruko azterketa egin dute. Asteburuan Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu dute herri askok.

Ezin egun bakarrera mugatu

Eneritz Maiz

Euskararen egunaren harira, eskualdeko hainbat herri ekitaldiak antolatu dituzte. Horien artean, Tolosan, Mintzodromoa egitasmoa izan zen ostiralean Galtzaundik antolatuta. Tolosako Udalaren eta Aitzol Udal Euskaltegiaren laguntza izan zuten.

Galtzaundi Euskara Taldea «gustura» gelditu da egindako lanarekin. Mintzodromoaz eta gazteekin egindako mahai inguruaz egin duten balorazioa positiboa izan da. Fronton kafetegian izan zen Mintzodromoa, eta helburua gai ezberdinen inguruan euskaraz hitz egitea zen. Guztira 9 talde osatu zituzten. 36 lagunek ordu-betez eta kafe bat hartuz, euskaraz hitz egiteko gunea izan zuten. Euskara hutsean, euskararekin lotutako hiru gai landu zituzten: euskararen erabilpena, kultura eta sustapena. Aurpegi ezagunak ere izan ziren tartean: Josu Iztueta, bidaiaria; Kike Amonarriz, aurkezlea; Iñaki Irazabalbeitia, Tolosako Udaleko Hizkuntza politika eta Hezkuntza saileko zinegotzia edota Mikel Uzkudun, Aitzol Udal Euskaltegioko zuzendaria, besteak beste. Aurkezle lanetan Jon Miranda, Txolarre irratiko esataria aritu zen.

Bestetik, hiru ikastetxeetako ikasleekin mahai ingurua egin zuten. Bertan, euskararen inguruan hizketan aritu ziren: erabilpena, kultura eta proposamenak izan zituzten hizketa gai. Aurretik, ordea, eskolatan landu zituzten gaiak. Bina ordezkari izan ziren, eta euskararen erabilerari dagokionean, euskara erabiltzen dutela diote, bai eskolan eta baita etxean ere. Salbuespena familian euskaraz ez dakien bat dagoen legoke. Eskolaz kanpoko jardueretan, ordea, gaztele-



Hiru ikastetxeetako ikasleen ordezkariak euskararen inguruko mahai inguruan egin zuten. E.MAIZ



Fronton kafetegian egin zuten Mintzodromoa. HITZA



Gazteek antolatuta, larunbatean, bazkaria egin zuten. I.TERRADILLOS

raz gaizki hitz egiten duenari ez zuzentzea erabaki dute. Euskal jaien eta gaztetxearen beharra ikusi dute, eta baita bereaiek inplikatu eta gauzak sortzeko beharra ere, beti udala edo erakundeak izan gabe.

Larunbatean, gazteek antolatuta ospatu zuten Euskararen Eguna, eta egun guztian ekitaldiak izan ziren.

Euskara aitzaki hartuta

Euskararen Eguna izaki, hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izan da eskualdeko herririk gehienetan. Udalez gain eskolek ere parte hartu dute. Iruran ikastolako haurrek euskararen eguneko ekitaldiak izan zituzten. Euskararen Eguneko adierazpena irakurri ostean, Jon Magik magoa izan zuten gazteetako frontoian. Ibarako Uzturpe ikastolako gazteek Ubeda anaian bisita izan zuten. Ikasleek bertsoak eta euren abesti bat kantatu zituzten, eta hainbat galdera egin zizkieten bi musikariei.

Ikaztegiatan, eskolako haurrek ederki dantzatu zuten, *Guk euskaraz* abestiaren erritmoan. Ipuin kontaketa saioa ere izan zuten, eta gauean, herritarrek afarian elkartu ziren. Orendainen, euskal jantzi tradizionalen inguruko hitzaldi-tailerra izan zuten. Jende asko elkartu zen, eta gustura egon ziren. Ondoren, Eltxo elkarteak guztiz bete zen gaztaina jatea egiteko. Berrobin ere, egun osoko festa izan zuten. Haurrek, jolasak eta ipuinak izan zituzten. Helduek, herri bazkaria egin zuten, talo eta kontzertuez gain.

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzea beharrezkoa dugu, baina honek, urte osoko lana izan behar du. Euskararen egoera normalizatorako bidean jartzeko, festa egun bakarrera mugatzeak ez du baliorik.

hitz egiteko ohitura handiagoa dute gazteek, batik bat irakasleak ez badaki.

Teknologia berrien erabilerak gazteen artean indar handia du. Tuenti, facebook,... bertso euskaldunak erabiltzen dituztela azpimarratu zuten. Sare sozialetan, berriz, hika erabiltzeko ohitura handia dute, nahiz eta, aurrez aurrekoan hikaz ez hitz egin. Hitz egiterakoan hika erabiltzen duten gazte gehienak, herri txikiak direla kontatu zuten. Euskarazko telebista (ETB1), berriz, ez dutela beraiantzako ia ezer, eta ez dutela ikusten izan da atera zuten ondorio orokorra.

Kulturari dagokionean, musika da gehien kontsumitzen dutena. Euskarazko musikaz gain gazteleazkoa eta ingelesezkoa ere kontsumitzen dute gazteek. Gutxi irakurtzen dutela diote, eta irakurtzen duten apurra gazteleaz irakurtzen dute. Sortzen dutena euskarazkoa da, eta erreferentzia handia egin zioten bertsolaritzari. Gazteengana iristen jakin du bertsolaritzak, eta asko kontsumitzen dute.

Proposamenen artean, euska-



Berrobin, herri bazkaria, ipuin kontalaria eta talo jatea izan zituzten. Iruran, ikasle, irakasle eta herritarrek frontoian elkartu ziren, manifestua irakurri eta Jon Magik ikusteko. HITZA / I.TERRADILLOS





Aresoko herritarrek, talo tailerra eta bazkaria izan zituzten besteak beste. HITZA



Ibarrako Uzturpe Ikastolan Ubeda anaiak izan ziren. HITZA



Eskolan haurrek festa egin zuten eta baita liburu trukea ere. Euskal abestiek giro-tutako afaria izan zen. E. MAIZ



Orendainen hitzaldi-tailerraren ostean, gaztaina jatea egin zuten Eltxo elkartearen. Kantuan ere aritu ziren. HITZA

Sexua



Bioaniztasunetik
Jon Ander Galarraga
Biologoa

Ez, ez duzue titulua gaizki irakurri eta biologo xume hau ez da oraindik guztiz zoratu, gaurko zutabe honetan sexuaz arituko gara eta inongo arazorik baduzue, orain da garaia irakurketari uzteko. Hala ere, sexuari beste ikuspuntu bat gehitu nahi badiozue, jarraitu irakurtzen, pena merezi du eta!

Pulpitutik nahi duenak nahi duena predikatuko du baina bizidunen helburu nagusia ugaltzea da, eta hau sexu bidez egiten da gehienetan. Beraz, hainbat sineskeriek sexua baztertuta duten arren, sexua oso garrantzitsua izan da eta izango da bizidunen historian, hau ez dela horrela frogatzen duena, etor dadila niregana. Baina zertarako sexua? Ez ote dago ugaltzeko beste modurik?

Bai, bizidun bat sexurik gabe ugaltu daiteke lasai asko, baina hau soilik bizidun batzuk egiten dute: bakteriek, uretako esponjek, zenbait itsas izarrek, anemona batzuk, landareek... baina hauek ere ahal badute sexu bidez ugaltzeko gai badira, ez dira inozoak!

Izan ere, sexu bidez ugaltzeak abantaila bat ematen du, gurason ezauzgarriak konbinatu egiten direlako. Sexurik gabe ugaltzen denak, bere buruaren kopia kloniko bat egiten du, hau ez da txarra, baina izaki guztiak berdinderdinak izango diren populazio bat sortzen da. Ingurunean aldaketa kaltegarri bat izaten bada, ale bat aldaketa hauekiko sentikorra bada eta hiltzen bada, goiz edo berandu ale guztiak daude heriotzara kondenatuak, berdinderdinak baitira!

Hobe da populazioan izaki bariatate bat izatea, honela inguruko aldaketei aurre egiteko ezauzgarriak dituzten aleak egongo dira tardean, hauek bizirik jarraituko dute, eta populazioa ez da desagertuko. Populazio anitza populazio indartsua da!

Hala ere, zuetako batek sexurik gabe ugaltzeko gogoia badu, lehenik eta behin asko jan behar du, bere pisua bikoiztu eta bat batean bi izakitan banatuko da. Esan behar da, gizakiek ez dutela hau egiteko gaitasunik, baina bakteriak adibidez oso abilak dira honetan, horregatik zabalitzen dira hain erraz hauek sortutako infekzioak eta gaixotasunak.

Sexu bidez ugaltzeko berriz, beharrezkoena ugalketa-zelulak sortzea da, arren kasuan espermatozoideak dira, eta obuluak emeen kasuan. Ostean, zelula hauek elkartu egin behar dira eta honek arazo bat baino gehiago ekartzen du. Hasierako bizidunak itsastarrak zirenez erraza zen ugal zelulak elkartzea. Itsasora isurtzea nahikoa zen eta ur korronteen laguntzaz espermatozoideak eta obuluak beren kasa elkartzen ziren. Hau egiteko ordea, emeek eta arrek aldi berean bota behar zituzten ugal zelulak, honek esan nahi du, aurrez mezu kimikoren bat bidali behar zietela elkarri: norbera bere lekuetara... prest... orain!

Lurra konkistatzean etorri ziren komeriak, ugal zelulak ezin baitziren airera askatu eta horretarako barne-ernalketa deritzoguna sortuzen. Arrek emea "konbentzitu" ostean beren espermatozoideak emearen barruan isurtzen zituen eta espermatozoide azkar hauek obulurantz joaten ziren zoroen modura elkarri ukondokoak emanez, ze erremedio!

Landareek adibidez, animaliok ez bezala, beren ugal zelulak aire-ra askatzeko gaitasuna lortu zuten lorearen bidez, arrek bertatik esporak jaurtikitzen dituzte, haizearen edo animali baten laguntzaz espora hauek emearen lore-tara barreiatzen dira eta bertan hazia sortuko da. Ikusten duzue sexuak joko handia eman duela bizidunetan, nahi duenak nahi duena esango duen arren, gure historiaren orrialdeak sexuaren hitzez daude idatziak.

Bukatzeko, *blogsoviet.com*-eko jendearen laguntzari esker *bioaniztasunetik.com* sortu dugula iragarri nahi dizuet, bisita gaitzazue, HITZAko artikuluek gain informazio gehigarri ugari baituzte, eta bestela betiko zuzenbidean gaudete: *bioaniztasunetik@hotmail.com*.



Bakteriak. HITZA

→ Laburrak

Hainbat komertzio atek zabalduko dituzte gaur

TOLOSA > Tolosa & Co merkatarik elkarteko 50-55 komertzio inguruk atek zabalduko dituzte gaurkoan, Txuleta Festa dela medio. Gaur atek zabaltzeko erabakia azterketa bat egin eta udalarekin hitz egin ondoren hartu zuten.

Ikasle Abertzaleek Herri Eskola antolatu dute

TOLOSA > Abenduaren 6a Espainiako Konstituzioaren Eguna izendatu zuten. Ikasle Abertzaleek ez dute jai egiteko asmorik, eta Laskorain Ikastolan Herri Eskolak antolatu dituzte. 100 ikasle baino gehiago elkartzea espero dute. 09:00etan elkartuko dira ikastolan, eta ondoren hainbat gai aztertuko dituzte; besteak beste, *Ikasleen eskubideak* eta *Txileko ikasle borroka*.

Bake epaitegiko idazkari kargurako deialdia

ANOETA > Udalalderi herriarrei deialdia egin die, bake epaitegiko idazkari kargua betetzeko. Eskaerak aurkezteko epea hilaren 14ean, asteazkenean, amaitzen da. Kurrikuluma aurkezteko eta baldintzak jakiteko, udaletxera joan behar da. Bake epaitegiko idazkariak astean lau ordutan eskaini beharko du zerbitzua, eta hiruhilekoan 236,34 euroko ordainsaria izango du.

Amaia Agirreri finalerako trenak ihes egin dio

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren finala hilaren 18an jokatu da Illunben, eta Jexux Mari Irazu bertan izango da

bertsozale elkartu ziren Galarretan, eta giro beroa jarri zuten harmailetan, batez ere, Azpeititik jokatuko Jokin Urangaren lagunek. Bertsuak aldiz, gustu eta kolore guztietakoak bota zituzten sei bertsolariek, nahiz eta saioa lehertzeko zerbait falta izan zen. Puntuei dagokienez, baxutik jo zuten epaileek, eta irabazlearekin batera, bigarrena bakarrik sailkatu zen finalerako: Inaki Apalategi eta Jon Martin.

Asier Imaz

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako trena, begien aurretik pasatzen ikusi zuten herenegun Amaia Agirrek, Hernaniko Galarreta pilotalekuan. Barruan joateko moduko saioa egin arren, kanpoan gelditu zen billabonatarra, Jokin Urangarekin batera. Epaileen erabakia izan zen, eta zenbaiti ulertzea kosta egin zitzaion.

Beroaldiak beroaldi, herenegun hirugarren eta azken finalurrekoa jokatu zen Hernanin. 1.600

Finala hilaren 18an, Illunben

Gipuzkoako txapelketaren azken saioa, finala, hilaren 18an jokatu da Donostiako Illunben. Eskualdeko ordezkari bakarra egongo da bertan, Jexux Mari Irazu. Sarrerak erosi nahi dituenak www.gpuntua.com-en du horretarako aukera.

↓ Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2011

HIRUGARREN FINALAURREKOA

Hernanin, herenegun

Sailkapena

1. Inaki Apalategi 480p.
2. Jon Martin 479,5p.
3. Amaia Agirre 472,5p.
4. Jokin Uranga 470p.
5. Inigo Manzidor 460,5p.
6. A. Agirreazaldegia 451,5p.

FINALA, HILAK 18AN

Zortzi finalistak

1. Jexux Mari Irazu 496,5p.
2. Beñat Gaztelumendi 490,5p.
3. Inaki Apalategi 480p.
4. Aitor Sarriegi 492p.
5. Unai Agirre 490p.
6. Agin Rezola 486p.
7. Alaia Martin 483p.
8. Jon Martin 479,5p.



Txekorra egun guztian zehar egon zen Zerkausion, burruntzian erretzen. I. GARCIA

Burruntzian erretako txekorrarekin hasi da aurtengo Txuletaren Festa

Ostegunera arte erretegietako menuaz gozatzeko aukera eskainiko dute Tolosako sukaldariak

tzian erretzen egon ziren, afaldarren sabelak bapo asetzeko haragia puntuan egon zedin. Gaurtik ostegunera arte, Zerkausiko jangelan 200 laguntzat lekua egongo da, bai afaltzeko eta baita bazkaltzeko ere.

Parrillan egindako txuleta datatu nahi dutenek, herriko lau erretegietako sukaldariak izango dituzte euren zerbitzura, hain zuzen ere, Orue, Burruntzi, Nikolas eta Julian erretegietako txuleta erretzaileak.

Bazkariekin gaur hasiko dira, bihar atseden hartu eta ostegunera jarraitzeko. Atzokoan bezala, afaltzeko aukera bihar egongo da. Hori bai, kasu honetan ez da txekorren erretze zerbitzatu.

Txuletaren Festaren berezitasuna erretegiko menua Zerkausion zerbitzatzea baldin bada ere, eskualdeko zazpi jatetxek bat egin dute ekimen honekin, eta euren erretegiko menua eskainiko dute ostegunera bitarteko epean.

Asier Imaz Tolosa

Ehun laguntzako afariarekin hasi zen 2011ko Txuletaren Festa Zerkausion, atzo iluntzean. Egunduek, ordea, txekorra burrun-

↓ Datuak

TXULETAREN FESTA

- **Bazkariak:** Gaur, hilaren 6a, eta etzi, hilaren 8a.
- **Afariak.** Bihar, hilaren 7a.
- **Erreserbak.** 943 69 74 13 telefono zenbakian edo tour@tolosaldea.net-en.
- **Jatetxeak.** Txuletaren Festa-ko menu bera eskainiko dute zazpi jatetxek: Astelena, Berazubi, Bete Alai, Bide Bide, Botarri, Olazabal eta Usabalek.

Irudia > Amasa-Villabona



ZALAKAINI OMENALDIA

Asteburuan, Belabietako parajeetan, 50 lagun inguruk «omenaldi beroa» egin zioten Mikel Zalakaini, bere heriotzaren 21. urteurrenari; bere semea ere gogoan izan zuten. Ohorezko aureskua dantzatu ondoren, egun, espetxeetan gaixorik dauden euskal presoak gogora ekarri zituzten, «bereziki larri gaixo daudenak». Haiek aske gelditzea «beharrezkoa» dela ere aldarrikatu zuten, «Euskal Herrian bizi dugun egoera politikoak aurrera egin dezan». HITZA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ **Kirol emaitzak****SOKATIRA**

Euskal Herriko 4X4 Goma
Gaineko Txapelketa
Finalerako sailkatuak

260 kilotan

1. Badaiotz B
2. Badaiotz A
3. Sakana
4. Ibarra A
5. Ibarra B
6. Berriozar

300 kilotan, A multzoa

1. Sokarri A
2. Ibarra A
3. Amaieur A

300 kilotan, B multzoa

1. Sokarri B
2. Amaieur B
3. Abadiño

TXIRRINDULARITZA**MUNDUKO KOPA****Jazarpen proba**

5. Leire Olaberria 03:38"
 * Espainiako errekorra lortu du ikaztegietak.

PILOTA**EMAKUMEA PILOTARI**

Nagore Arozena lizartzarra binakako txapelketan finalera pasa da asteburuan, Maite Redondorekin bikotea osatuz. **Malder Mendizabal** anoetarrak jokatu du bigarren finalerdia, Mirari Etxegia lagun duela.

ERREMONTEA**Binakako Txapelketa****Finalerdietako lehen partida**

Ezkurra-Aizpurua 24
 Juaristi-Lizaso 40

ARETO FUTBOLA**BIGARREN B MAILA****10. Jardunaldia**

Sala 10-Laskorain 4-3

Sailkapena

1. Ebrosala 23p.
 2. La Bastida Atenea 20p.
 3. Zierbana 18p.
- 10. Laskorain Ikastola Kirol Elkartea** 11p.

HIRUGARREN MAILA

11. jardunaldia
 Santurtzi-Egintza 4-2
 Sestao-Ibarra 5-1

Sailkapena

1. Ibarra 27p.
 2. Sestao 26p.
 3. Gora C.D. 20p.
- 12. Egintza Transportes Lakuntza** 11p.

EUSKAL LIGA**11. jardunaldia**

EHU Araba- Hirukide 2-6
Uxo- Eskolapioak 6-0
Tolargi- Kukuiga 7-4

Sailkapena

1. Tolosala Hirukide 30p.
2. Mamarigako FS 24p.
3. Tolargi 22p.
9. Eskolapioak 12p.

FUTBOLA**ERREGIONAL OHOREZKOA****13. jardunaldia**

Tolosa-Aretxabaleta 0-1

Sailkapena

1. Anaitasuna 29p.
2. Berio 25p.
3. Oiartzun 24p.
5. Tolosa 22p.

ERREGIONAL PREFERENTEA**13. jardunaldia****Lehen taldea**

Tolosa B- Munibe 3-4

Sailkapena

1. Touring 28p.
2. Ostadar 28p.
3. Tolosa B 26p.

Bigarren taldea

Orioko-Intxurre 2-0

Sailkapena

1. Soraluze 25p.
2. Anaitasuna B 21p.
3. Lagun Onak 20p.
16. Intxurre 8p.

MENDI DUATLOIA**LANGRAITZEKO DUATLOIA**

1. Endika Garzia 01:27:09
 4. Eneko Gurrutxaga (Villabona) 01:30:06



Iazko podiuma; Nys garailerean ondoan, Pauwels eta Albert. Gaur ezingo dute podiuma errepikatu. A. IMAZ

Sustraietara itzuliko da Asteasuko Nazioarteko Ziklo Kros Txapelketa

10:00etatik aurrera sei maila desberdinez osatutako lau proba jokatu dira gaur, Eizmendi auzoan

Asier Imaz Asteasu

Aitzondo Txirrindulari Elkarteak erabaki garrantzitsu bat hartu behar izan du gaurko ziklo kros proba antolatzerako garaian: aurreko urteetako maila mantendu, izar distiratsuenak ekarri, edo probaren etorkizuna bermatu, maila xumeago batean. Bigarren aukeraren aldeko apustua egin dutenez, aurtengoa, Asteasuko Nazioarteko Ziklo Kros Txapelketa, ez dira nazioarteko txirrindulari onenak egongo. Hala eta guztiz ere, maila goreneko proba izaten jarraituko du, nazioarteko egutegiaren barruan.

Antolatzaileek azken egunetan azaldu dutenez, krisiaren eragina gogor jasan behar izan dute: «45.000 euro inguruko aurrekon-

tu bat izatetik, 12.000 euro izatera pasatu gara». Dirua biltzeko garai arazoak izan dituzte, eta behar kadak alde guztietatik etorri zaizkie, bai instituzioetatik eta baita arlo pribatutik ere. Zerbait estutzen hasita, nahiago izan dute diru iturriak lasai utzi eta aurrekontua jaitsi.

Aitzondotik azaldu dutenez, aurtengoa eskaintza ugari jaso dituzte txirrindularien aldetik, hona etortzeko prestutasuna agertuz. Egoera ekonomikoa kontuan hartuta, ordea, ezezkoa eman beharrean suertatu dira,

↓ **Lasterketak****GAUR, ABENDUAK 6**

- **10:00etan.** Kadeteen proba.
- **10:45ean.** Jubenilak eta emakumeak.
- **12:00etan.** Elite eta 23 urte azpikoak.
- **13:30ean.** Maila nagusiko proba.

eta ondorioz, nazioarteko txirrindulariak egongo diren arren, Sven Nys, Niels Albert edo Stybar adibidez ez dira etorriko. Euskal Telebistak ere ez du proba zuzenean botako.

Aurrera begira, «ilusioz»

Garai gogorrak bizi arren, antolakuntzak etorkizunari «ilusioz» begiratu nahi dio: «Betiko ilusioarekin jarraitzen dugu, eta etorkizuneari, Asteasuko proba berriro ere lasterketa garrantzitsu bat izatea nahiko genuke».


Aurtengoa beraz, sustraietara itzuliko dira, duela 13 urteko proba: «Euskadi mailako proba bat antolatzen hasi ginen orduan, gero maila handitzen joan zen eta munduko onenak Asteasura ekartzea lortu izan dugu. Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako ziklo krosarentzat garrantzitsua proba bera mantentzea dela uste dugu».

Zaleek beraz, gaurko lasterketaren nondik norakoak ikusita, inoiz baino zita garrantzitsuagoa dute Asteasuko Eizmendi auzoan, 10:00etatik aurrera.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
 urteurrenak
 eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalanztak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

ANTZERKIA

■ **Tolosa.** Mimaia taldeak *Adiós, bienvenida* estreinatuko du, 18:30ean, Topic zentroan.

DEIALDIK

■ **Tolosa.** 16:30ean hasiko da Jose Inazio Elola zesta punta jokalarari ohiari omenaldia Beotibar pilotalekuan.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, 17:00etan, *Malabar printzeza*; 19:30ean eta 22:00etan, *Mientras duermes*.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 2. 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak!

Amets Zelarain (Alegia). Atzo 2 urte. Muxurik beroena aitatzko Oskar, aitona Peio eta familia guztiaren partetik. Maite zaitugu.

Programazioa

28 KANALA

■ **12:30.** Halterofilia txapelketa.
■ **13:00.** Ikusmira. ■ **13:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **14:00.** Gipuzkoako kultura. ■ **14:30.** 28 klip.
■ **15:00.** Altxor txokoa. ■ **15:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **16:00.** Ikusten. ■ **16:30.** Baratzeko loreak. ■ **17:00.** Jarraipena. ■ **17:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **18:00.** Musti. ■ **18:30.** Lamien artean. ■ **19:00.** BIT. ■ **19:30.** Tolosaldean Gaur. ■ **20:00.** Euskal Dantza txapelketa.
Programazioa 8 orduko errepikatua da.

TXOLARRE IRRATIA

■ **11:00-12:00.** Tolosaldeko Ahotsa Albistegia. Besteak beste, arratsaldean Jose Inazio Elorri egingo zaion omenaldiaz hitz egingo dute.
■ **12:00-13:00.** Tolosaldeko Ahotsa Magazina. Durangon Independentistak sareak antolatutako duen Ordu Berdearekin bat egingo dute eta Txutxi Ariznabarreta ariko da bertatik hizketan. Galtzaundik banatutako *Eskerrak Zuri* aipamenak eta Elhuyar Fundazioaren eskutik zientziari eskainitako tartea.
■ **13:00-13:30.** Lehiaketa eta disko eskainiak.
■ **13:30-14:00.** Infozazpi albistegia
■ **14:00-15:00.** Tolosaldeko Ahotsa Albistegia.
■ **16:00-17:00.** Txingurri hotsak (Antxeta Irratia).
■ **17:00-18:00.** Kabitik Plazara.
■ **18:00-19:00.** Tolosaldeko Ahotsa Magazina.
■ **19:00-20:00.** Tolosaldeko Ahotsa Albistegia.
■ **20:00-20:30.** Infozazpi albistegia.
■ **21:00-22:00.** Zuria Beltzez (Hala Bedi).



Galtzaundi euskara taldeak Tolosako udaletxearen batzar aretoan banatu zituen aipamen bereziak. I. GARCIA

'Eskerrak zuri' musikatua

Tolosa Kantari, Baso-Lur enpresa eta euskara irakasle euskaldun berriak saritu ditu Galtzaundik

Imanol Garcia Tolosa

Galtzaundi euskara taldeak *Eskerrak zuri* aipamen bereziak banatu berri ditu. Tolosa Kantari jaso zuen aipamen horietako bat eta, noski, bertako kideek sari bana-keta girotu zuten abestiek. Beste sariak Baso-Lur enpresak eta euskara irakasle euskaldun berriek jaso zituzten.

Badira hiru urte Tolosa Kantari ekimena martxan jarri zela: hileko azken larunbatetan 100 lagunetik gora biltzen dira Tolosako Alde Zaharrea euskal kantak abesteko. «Ordudunik, Tolosa Kantariaren baitan bildutakoek euskarari mesede baino ez diote egin kantuzaletasunak bultzatuta», azaldu zuten Galtzaunditik.

Tolosa Kantariaren baitan bildutako kide guztiak euskaldunak ez badira ere, parte hartzaileen arteko hizkuntza euskara da, euskarak erabateko presentzia dauka bertako harremanetan, aukeratuak abestietan... «Osteguneko entseguek ere aukera ematen die bertako partaideei abestiak euskaraz irakurtzeko eta abesteko. Euskaraz alfabetatu gabeko partaide asko egonik, begi erdaldu-nak euskarara jartzen laguntzen zaie honela», gaineratu zuten euskarataldetik.

Enpresa munduan euskaraz

Baso-Lurrek enpresa munduan euskararen inguruan egindako lanagatik jaso du aipamen berezia. «Nekazaritza tresneria saldu eta konpontzen duen enpresa honetik azken urteotan pauso garrantzitsuak eman ditu enpresa munduan euskara zabaltze alde-», zehaztu dute Galtzaunditik. Bide horretan, enpresak Irurako Udalarekin sinatutako hitzarmena hartu du oinarri euskara talde-

ak. «Urte hauetan, konpromisoetan aurrera egin du Baso-Lurrek. Esaterako, hizkuntza paisaiari dagozkion konpromisoak ongi bete ditu (erakundearen irudian euskara lehenetsiz), bezeroarekiko idatzizko harremanak euskaraz eskaintzen ditu (euskara hitzsean eta bezeroak eskatuz gero gazteleraz), bezeroarekiko ahozko harremanak euskaraz lantzen ditu...».

Hirugarren aipamen berezia euskara irakasle euskaldun berriei eman zien. Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiak datorren ikasturtean 30 urte beteko ditu eta ibilbide luze horren baitan besteak beste, Miren Atxaga, Jabi Diaz eta Kristina Uranga euskara irakasten jardun dira. «Guztiak, era batera edo bestera, momentu batean euskara euren egitea erabaki zuten; euskaldunak, euskara ikasiz, alfabetatuz edota euskara berreskuratuz», azaldu zuten Galtzaunditik. Saria emanez, egindako lasn hori goraiatu zuten euskara taldekoek.



HITZAK harpidedunentzat **20 sarrera pare** ditu

Olentzero eta Iratxoaren Jauntxo

filma

Sarrerak, filma eskainiko den edozein toki eta ordutegitan erabili ahal izango dira

sariak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak